



**2012KO UZTAILAREN 27KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko uztailaren hogeita zazpian, goizeko hamar eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estenso-ro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2012ko uztailaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 37 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, BERROGEI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (40.237,27 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- 6 H.J.A.-ITURGAITZAGA-KO URBANIZAZIO PROIEKTUA.-

Udal honek, 2012ko apirilaren 20an emandako Alkatetzaren Ebazpen bidez, Ikaur, S.L.k idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6.H.J.A.ko -Iturgaitzaga-Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartzea ebatzi zuen.

Hasierako onarpen honetan, txosten teknikoan jasotako hainbat zehaztapen jasotzera baldintzatzen zen behin betiko onarpena.

Proiektua jendaurreko erakustaldian egon da hogeitazazpi eguneko denboraldian, Udaltxeko iragarki taulan iragarkia ezarriz, eta 2012ko apirilaren 30eko 81 zbk.dun G.A.O.an eta 2012ko apirilaren 25eko Berria eta 2012ko apirilaren 26ko Gara egunkarietan iragarki-ak argitaratuz.

Urbanizazio Proiektua jendaurrean erakusgai egon den 20 eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

2012ko uztailaren 24an Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak aipatu proiektuaren inguruan aldeko txostena egin du.



Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guzti-
en aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- 1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6.H.J.A.ko -Iturgaitzaga- Urbanizazio
Proiektua, hasierako onarpenerako luzatutako txosten teknikoan ezarritako zehaztape-
nak barne direla, behin-betikoz onartzea.
- 2.- Talde erredaktatzaileari agintzea hilabete bateko epean hasierako dokumentua eta ha-
sierako onarpenean ezarritako zehaztapenak barneratzen dituen bategindako testua
idatz dezala.
- 3.- Behin bategindako testua idatzi eta gero, hau Tokiko Gobernu Batzar honen onarpene-
ra jarriko da.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,
goizeko hamabiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen
dudalarik.

